

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA**HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK**

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

1936ko kolpe militarren ondorioz desagertutako pertsona baten gorpuzkiak aurkitu dira Izaurgiko leizean (Erroibar)

Nafarroako Gobernuak herritarrei informazioa eskatu die oraindik berreskuratu ez diren fusilatutako eta desagertutako mila pertsona baino gehiago aurkitzen laguntzeko

Asteartea, 2016.eko abuztuak 23

Nafarroako Akelar eta Sakon espeleologia-taldeek gorpuzkiak topatu dituzte Erroibarko Izaurgiko leizean; gorpuzki horiek 1936ko kolpe militarren ondorioz desagertutako pertsona batenak izan daitezke eta orain arte aurkitu ez zena.

Aurkikuntza hori jakinarazi ondoren, Nafarroako Gobernuaren eta Aranzadi Zientzia Elkartearen arteko hitzarmenaren esparruan, azken erakunde horretako kideak tokira bertara joan dira, eta egiaztatu dute gizonezko baten ia osorik dauden gorpuzkiak direla, eta haren eskeletoa leize horretara bertara botatuko animalien gorpuzki askorekin nahastuta dagoela, 50 metroko sakoneran.

Nafarroako Gobernuak gorpuzkiak hobitik ateratzeko finkatutako protokoloari jarraiki, aurretiazko txostena egin ondoren, datozen hilabeteotan haiek berreskuratuko dituzte metodologia egoki bat erabiliz.

Herritarren laguntza

Nafarroako Gobernuak herritarren laguntza eskatu nahi du informazioa emateko orduan, 36an fusilatutako eta desagertutako mila pertsona baino gehiago topatzeko orduan lagungarri izan daitekeelakoan; izan ere, haien guztien gorpuak oraindik ez dira berreskuratu.

Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak aipatu duenez, Izeurgiko leizean izandako era honetako aurkikuntzek "garrantzi handia dute familiei erantzunak emateko garaian, 80 urtez beraien senideak aurkitzeko zain baitaude". Gainera, aurkikuntza horiei esker, "biktitek egia jakiteko, justiziarako eta erreparaziorako duten eskubidean aurrera egin dezakete, eta 1936ko kolpe militarren ondorioz hil zituzten pertsonak duintasunez lurperatzea eta beraien familiei itzultzea ahalbidetzen dute".

Alde horretatik, aipatutako zuzendaritza nagusiak hobi edo era honetako lurperatzeren baten kokapenari buruzko informazioa duen edozein pertsonari, ezaguna izan edo ez, Nafarroako Gobernuarekin harremanetan jar dadin eskatzen dio 848 426 047 telefono-zenbakira deituta, pazyconvivencia@navarra.es helbide elektronikora idatzita edo beraien eskutan duten dokumentazioa edo beraien testigantza ondorengo posta-helbide honetara bidaliz: Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza

Eskubideen Zuzendaritza Nagusia, Arrieta kalea, 12, 5. solairua, 31002, Iruña.